

# **ERRENTERIAKO LGTBI+ PERTSONEN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO EKINTZA-PLANA**

**Errenteria, 2022ko maiatza**



**ERRENTERIA**  
UDALA

## 1. AURREKARIAK

Errenteriako Udaleko berdintasunerako politikak emakumeak subjektu politikoa zabaltzeko prozesuan daude, emakumeen subjektu politikoari uko egin gabe, sexu-genero sisteman (patriarkatuan) berdin-berdin oinarriturik dauden arrazoiengatik diskriminazioa jasaten duten pertsonak sartzeko. Era berean, politika horiek aintzat hartzen dituzte egiturazko beste diskriminazio-iturri batzuk ere (hala nola, klase soziala, adina, jatorri kulturala, aniztasun funtzionala, administrazio-egoera...), sexu-genero sistemarekin elkarreraginean jarduten baitute, eta LGTBI pertsonen zaugarritasuna eta diskriminazioa indartzen.

LGTBI+ pertsonen eta kolektiboek egindako eskaerari erantzuteko 2018an Errenteriako Udalak LGTBI+ pertsonen diagnostikoa egin eta 2019ko ekainean aurkeztu zuen. Diagnostiko horretan proposatu ziren ekintzetik abiatuta heteroarauetan zentratzen ez diren politika publikoak garatzeko konpromisoa hartu zen eta horrela jaso zen 2019-2023 agintaldi planean. Horretarako beharrezkoa ikusten da diagnostikoan proposatutako ekintzetatik abiatuta prozesu bat martxan jartzea ekintza-plana osatzeko eta estrategia berriak sortzeko. Hori guztia, dagozkion eragile sozial eta instituzionalak inplikatu dituen prozeduraren bitartez egingo da.

Horretarako, maiatzan prozesu bat abiatu zen Eihera Koop. Txikiaren aholkularitzarekin. Prozesu horren bilakaera eta emaitza jarraian azalduko dira.

## 2. SEXU-ORIENTAZIOARI ETA GENERO-IDENTITATEARI BURUZKO ARAUDIA

### Euskal Autonomi Erkidegoan

- **1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarrenenez aldatzen duena.**

Sexu- eta/edo genero-identitatea eta sexu-orientazioa askatasunez garatzeko eskubidea eta gorputzaren autonomiarako eta autodeterminaziorako eskubidea, sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzeko berme gisa.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko, botere publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituzte, batetik, sexu-identitatearekin eta/edo genero-identitatearekin eta sexu-orientazioarekin lotutako diskriminazioak bizitzaren eremu guztietatik desagerrarazteko, eta, bestetik, beharrezko politika publikoak garatu behar dituzte, emakume guztien gorputz-autonomia eta autodeterminazioa bermatzeko, eta, bereziki, beren sexu- eta ugalketa-eskubideak diziiplina anitzetatik eta ikuspegi integraletik baliatzeko.

- **14/2012 Legea, genero-identitateagatiko diskriminaziorik ezari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzkoa.**

- **234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen administrazio-dokumentazioari buruzkoa.**

### Espainiar Estatu

Uztailaren 1eko **13/2005 Legea**, sexu bereko pertsonen ezkontza ahalbidetu zuen Kode Zibilaren aldaketa onartu zuena, eta, horren ondorioz, beste eskubide batzuk, hala nola adopzio bateratua, jaraunspena eta pentsioa.

2006ko maiatzaren 26an, Espainiako Gobernuak aldatu egin zuen lagundutako giza ugalketaren teknikei buruzko maiatzaren 26ko **14/2006 Legea**, eta aukera eman zion ama ez-biologikoari legez seme-alabatzat aitortzeko bi emakumeren arteko ezkontzan jaiotako haurrak.

Martxoaren 15eko **3/2007 Legeak**, pertsonen sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketa arautzen duenak, beren nortasunarekin kontraesanean dagoen sexuaren erregistro-esleipena zuzentzea ahalbidetzen du, «Sexu-berresleipeneko kirurgia» egin beharrik gabe eta aurretiazko prozedura judizialik gabe.

### Europar Batasuna

**Europar Batasunaren ibilbide-orriari buruzko Lunacek txostena, sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren eta homofobiaren aurkakoa (2014)**

2014ko otsailaren 4an, **Europako Parlamentuak Lunacek txostena** onartu zuen, sexu-orientazioagatiko edo genero-identitateagatiko edo sexu-identitateagatiko

diskriminazioarekin amaitzeko ibilbide-orria. Lege horiek onartzea mugari garrantzitsua da Europar LGTBI eskubideen aldeko borrokan, eta legedi nazionalak errespetatu behar dituzten ildo zuzentzaileak markatzen ditu.

Baita **Europako Kontseiluaren Batzarrak** onartutako ebazpena ere (2015/4/22), Europako transexualen aurkako diskriminazioari buruzkoa.

Azkenik, **Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak** (2016/C 202/02), 21. artikuluan, diskriminaziorik ezari buruzkoan, honako hau ezartzen du: «Debekatuta dago bereizkeria oro, eta, bereziki, sexuagatik, arrazagatik, koloreagatik, jatorri etniko edo sozialagatik, ezaugarri genetikoengatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik edo sinesmenengatik, iritzi politikoengatik edo bestelakoengatik, gutxiengo nazional bateko kide izateagatik, ondareagatik, jaiotzagatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-joeragatik».

### **Homofobiaren aurkako liburu zuri europarra. Sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko tokiko berdintasun-politikak (2011)**

Liburu zuri hau Homofobiaren aurkako proiektuaren esparruan egin da. Europako tokiko gobernuen gailuak (AHEAD, ingelesezko sigletan), Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen eta Herritarren Zuzendaritzak kofinantzatuta eta Bartzelonako Udalak sustatuta. Proiektu honen helburu nagusia, 2010eko urtarrilean hasi eta 2011ko ekainean amaitzen dena, tokiko mailan LGTB kolektiboaren diskriminazioari aurre egiteko politiken ezarpena sustatzea da. Alde horretatik, liburu zuria tresna baliagarria izan nahi du toki-administrazioek sexu-orientazioagatiko eta identitate edo genero-adierazpenagatiko diskriminazioaren aurka borrokatzeko abiarazi ditzaketan ekintza motak agerian uzteko.

### **NBE**

#### **Yogyakartaren printzipioak: sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko Giza Eskubideen nazioarteko legedia aplikatzeari buruzko printzipioak (2006)**

Yogyakartaren Printzipioek giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea sexu-orientazioari, genero-identitateari eta -adierazpenari eta ezaugarri sexualei aplikatzeari eragiten diote, baita estatuei LGTBI pertsonen giza eskubideen babesa berma dezaten eskatzeari ere.

#### **17/19 Ebazpena, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa (2011)**

17/19 ebazpena, lehen aldiz LGTBI kolektiboaren eskubideak aitortzen zituena, eta sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik munduko edozein lekutan egindako indarkeria- eta diskriminazio-ekintzak gaitzesteko adierazpen formala.

2012an, beste ebazpen bat onartu zen, estatu kideei eskatzeko LGTBI pertsoneri parte-hartze politikoa eta bizitzako beste esparru batzuk oztopatzen dizkieten oztopoak ezabatzeko, haien bizitza pribatuan interferentziak saihestuz. Urte horretan bertan, «Jaiotza askeak eta berdinak» eskuliburua argitaratu zuen. Bertan, LGTBI pertsonen giza eskubideen babesari dagokionez estatuek dituzten oinarrizko bost betebeharrak laburbiltzen ziren.

**2015ean, Giza Eskubideen Goi Komisarioak LGBTI auziari buruzko txosten** bat egin zuen, estatu kide askok gai horri buruzko politika eta legedietan inspiratu dituzten hainbat gomendiorekin. “Sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik pertsonen aurka egindako lege eta praktika diskriminatzaileak eta indarkeria-ekintzak”

### 3. PROZESUAREN HELBURUAK

Ekintza Plana egiteko, maiatzean prozesu bat hasi zen, Eihera Koop Txikia-ren aholkularitzarekin, helburu hauekin:

- *ErreferenteEkin* diagnostikoa oinarri hartuta, Errenteriako LGTBI+ pertsona eta kolektiboen bizi baldintzak hobetuko dituen plangintza diseinatzea.
- Herrian LGTBI+ kolektibo eta errealitateen inguruko sentsibilizaziorako eta eraldaketarako lanketa egitea.
- Berdintasun politiketan, sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzea.
- Herriko LGTBI+ pertsoneri eta mugimenduei parte-hartzeko guneak ahalbidetzea.

### 4. METODOLOGIA

Prozesu hau fase desberdinetan burutu da hainbat eragilerekin batera. Hiru denbora-fase bereizi dira ikerketan zehar, nahiz eta zenbait jarduera gainjarri ahal izan diren une batzuetan. Aldi berean, batera gertatu diren bi prozesu desberdin eta osagarri bereizi daitezke, eragile desberdinekin egindako lanarekin zerikusia dutenak. Gainera, fase guztietan kontraste-bilerak tartekatu dira, eta horiek bisagra moduan funtzionatu dute, ixten zen etapa bakoitza konektatzeko.

Horrela, hiru faseak honako hauek izango lirateke:

- 1) parte hartu duten eragileak eta Errenteriako errealitatea ezagutzeko lehen fasea;
- 2) bigarren fasea; landa-lana bera: elkarrizketak, bilera espezifikoa funtsezko eragileekin eta kontrastea udalarekin;
- 3) idazketa-prozesuan datuak antolatu, sistematizatu eta azaltzeko azken fasea, adituekin uztartu dena.

Txosten honen espazioa gainditzen duen baina ikerketaren funtsezko helburua den azken fase bat emaitzak azaltzea, aurkeztea eta gizareratzea izango da, bai hura egiten parte hartu duten pertsonekin, bai publiko orokorrarekin izatea aurreikusten da, eta ondoren baloratu beharko da hori nola egin.

Era berean, garrantzitsua da adieraztea bi prozesu egin direla aldi berean:

- prozesu espezifikoa bat LGTBI+ Mahaiarekin, bere erritmo propioak izan dituenak.
- LGTBI+ neurriak eta politikak identifikatzeko eta sortzeko prozesu bat, aipatutako faseen barruan.

Txosten honetan Errenteriako Udalaren berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko ekintza-plana osatzeko prozesua azalduko da.

## **LGTBI+ NEURRI ETA POLITIKAK IDENTIFIKATU ETA SORTZEKO PROZESUA**

Fase honetan datuen jasoketa burutu da. Datu horiek jasotzeko eta elkarrizketak egiteko eragile eta norbanakoen identifikazio lana egin zen, prozesua ahalik eta anitzena izateko helburuarekin.

Elkarrizketatu beharreko pertsonak zein izango ziren erabaki ondoren, bilera-sorta abiatu zen. Pertsona askok interes eta aurretiko jarrera handia erakutsi bazuten ere, beste batzuekin askoz zailagoa izan da. Ondorioz, prozesua luzatu egin da eta beste berriemaile batzuk berriz aztertu behar izan dira.

Horrelako ezustekoak, hala ere, ez dira oztopo handiak izan, ikerketa ororen dinamikaren parte baizik, prozesu osoan zehar etengabe birformulatzen dena.

Elkarrizketak egin eta informazio guztia jaso ondoren, datuak sistematizatu, sailkatu eta aztertu dira, neurri eta politika zehatzak sortu dira. Azken prozesu horretan ezinbestekoak izan dira kontrasterako lan-bilerak, dokumentuaren norabidea definitzen joateko.

## 5. PLANGINTZA


Neurriak eta politikak sortu eta diseinatzeko orduan, ezinbestekoa da aldez aurretik beharrak zeintzuk diren identifikatzea. Horretarako, *ErreferenteEkin* diagnostikoa abiapuntu moduan hartu da. Material horretan jasotzen diren datuak eta proposatzen diren neurriak funtsezkoak izan dira ondorengo proposamena diseinatzeko.

Era berean, landa-lanaren fasean egindako elkarrizketa, solasaldi eta dinamikek LGTBI+ pertsonen bizitza bizigarriagoak izateko oinarritzko premiak konfirmatu ziren eta horiei erantzuteko lan-ildoak identifikatu ziren.

Ekintza-planaren helburu nagusia Errenteriako LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzea izanik, helburu hori izango da erdigunean eta modo transbertsalean egongo den helburua. Ondoren, elkarrizketa eta saio ezberdinetan ateratako behar nagusiak multzokatu eta helburu nagusia lortzeko beste lau helburu zehaztu dira:

- 1) *Indarkeriarik gabeko bizitzak*
- 2) *Sozializazioa, zaintzak eta parte-hartze komunitarioa*
- 3) *Ikusgarritasuna eta errekonozimendua*
- 4) *Bizi baldintza sozial, material eta emozionalak*

Hortaz, helburu horiei erantzuteko 8 lan-ildo definitu dira eta lan ildo-horiek jasotzen dituzten ekintzak modu transbertsaleak eta dinamikoan eragingo diete definitutako helburu zehatzei.





## **5.1. HELBURUAK:**

### **1. LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzea**

#### **1.1. LGTBI+ pertsonen IKUSGARRITASUNA ETA ERREKONozIMENDUA lortzea**

Ikusgarritasuna eta errekonozimendua ezinbestekoak dira, identitatea eta subjektibotasuna eratzeko ez ezik, nor bere burua izendatzeko eta existitzeko gaitasuna izateko ere. Ikusgarritasunik gabe ez dago erreferenterik, eta LGTBI+ pertsonak beti izango dute eredutzat errealitate heterosexuala, menderatzeko eta baztertzeko sistema gisa bizitzako esparru guztietan inposatzen dena. Aitzitik, LGTBI+ pertsonen errealitateak ikusarazteak alternatibak ematen dizkio eredu heterosexual hegemonikoari, pertsona bakoitzak nahi duen moduan eta modu askeagoetan bizitzeko eta bizitza esperimendatzeko.

Bestalde, funtsezkoa da LGTBI+ pertsonen bizitzak, borrokak eta bideak onartzea, bai Errenteriakoak, bai beste eremu batzuetakoak, prekaritate, jazarpen eta indarkeria egoeran egon arren, lurralde baten memoria historikoa lantzeko. Gainera, aitorten publiko eta instituzionalak legitimitatea ematen die LGTBI+ mugimenduari zein borrokei, eta, beraz, historikoki gaitzetsi diren bizitzak eta esperientziak balioesten laguntzeaz gain, aurrekaria sortzen du beste eragile batzuek ildo horretan jarrai dezaten.

**Aurreikusitako 23 ekintzek ikusgarritasuna eta errekonozimendua lortzeko helburuari erantzungo diote.**

#### **1.2. LGTBI+ pertsonen BIZI-BALDINTZA SOZIALAK, MATERIALAK ETA EMOZIONALAK bermatzea**

Ikusgarritasuna eta errekonozimendua gauzatu eta horiei aurre egin ahal izateko, gure behar material, sozial eta emozionalak beteta izan behar ditugu. Horrekin, oinarrizko bizi-baldintzei buruz ari gara nagusiki (etxebizitza bat eskuratzeko aukera, zerbitzu publiko eta sanitarioak, eta abar), baina baita gure premia emozional eta sozialak ez murrizteko eskubideaz ere, gure bizitzak baldintzatzen eta mugatzen dituzten gizarte- eta erakunde-egituren inakzioetatik edo praxi txarragatik.

Hala, baldintza sozial, material eta emozionalei dagozkien neurri batzuek udal eskumenetatik ihes egin dezaketen arren, zenbait praktika erakundeetatik aplikatu daitezke, eta LGTBI+ pertsonak espazio ezberdinetan diskriminaziorik jasan ez dezaten bermatzen

dute, bai eta LGTBI+ komunitatearen bizitzak eta esperientziak bizigarriago bihurtzeko abian jarri daitezkeen neurri zehatzak ere.

**Aurreikusitako 16 ekintzek bizi-baldintza sozialak, materialak eta emozionalak bermatzeko helburuari erantzungo diote.**

### **1.3. LGTBI+ pertsonen INDARKERIARIK GABE bizitzea**

Indarkeriarik gabeko bizitza izatea, norbanakoaren eta kolektiboaren nahia eta irrika izateaz gain, hori lortzea eta prebenitzea udal baten helburu nagusietako bat izan behar da. Indarkeria jasaten duten edo pairatu duten LGTBI+ pertsonak babestea eta erabat desagerrarazteko prebentzioan lan egitea da instituzio publikoen ardura. Izan ere, segurtasuna eta osotasun fisiko, psikiko eta emozionala funtsezkoak dira bizitza libre eta osoa berdintasunean garatzeko.

LGTBI+ pertsonen indarkeria askori egin behar izan diote aurre heuren bizitzan. Indarkeria horiek eraso fisikoen dute zerikusia, baita beste eraso sotalago batzuekin ere, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoak, heuren genero-adierazpena, sexualitatea edo identitatea bizitzeko moduarengatik.

**Aurreikusitako 18 ekintzek indarkeriarik gabe bizitzeko helburuari erantzungo diote.**

### **1.4. LGTBI+ pertsonen SOZIALIZAZIOA, ZAINTZAK ETA PARTE-HARTZE KOMUNITARIOA sustatzea**

Kide izatea eta komunitatea izatea ezinbestekoa da munduan eta bizi garen gizarte-panoraman gure lekua zehaztuko duten elkartasun- eta afektu-loturak eta -sareak erraztuko dituzten bizi-baldintzak sortzeko. Horretarako, sozializazioaren bidez gizarte-espazioetarako sarbidea izatea, laguntza- eta kidesun-talde bidez zaintza, kezka eta interes komunak garatu eta partekatze komunitate-foroetan eta foro politikoetan parte hartzeko aukera izatea, oinarrizko premiak dira herritartasuna lantzeko.

LGTBI+ pertsonen, bortxazko ikusezintasunaren arrazoi historikoengatik, ikusi dute sozializazio, zaintza eta parte-hartze komunitarioetarako dituzten aukerak nuluak edo oso urriak zirela, eta, askotan, beren bizitzak mehatxatuta egon zitezkeen esparru baten barruan. Horregatik, LGTBI+ sozializazio-espazioak eta espazio horiek sustatzen dituzten

jarduerak babestu, bultzatu eta aintzatesteko esparru instituzional bat ezinbestekoa da, espazio horiek garatzeko baldintza hobekak eskaini ahal izateko.

**Aurreikusitako 24 sozializazioa, zaintzaK eta parte-hartzeko komunitarioa sustatzeko helburuari erantzungo diote.**

## **5.2. LAN-ILDOAK**

4 helburu zehatzak lortzeko, 8 lan-ildo zehaztu dira eta lan-ildo bakoitza garatzeko ekintzak zehaztu dira:

1. Memoria: 5 ekintza.
2. Protokoloa: 3 ekintza.
3. Sentsibilizazioa: 6 ekintza.
4. Hezkuntza: 2 ekintza.
5. Arreta eta saretzea: 3 ekintza.
6. LGTBI+ zahartzaroa: 4 ekintza.
7. Kultura, aisia eta kirola: 8 ekintza.
8. Gobernu ona: 9 ekintza.

## **5.3. EPEAK**

Epeari dagokionez, ekintzak hiru epe orientagarritan sailkatu dira:

- Motza (2022-2023)
- Ertaina (2024-2028)
- Luzea (2028-2030)

Epe-motzeko ekintzak, hau da, lehenasunez garatuko diren ekintzak zehazteko saio bat antolatu da LGTBI+ Mahaia osatzen duten kideekin.

## 5.4. EKINTZA-PLANA

Guztira 40 neurri definitu dira.

ARLOA	NEURRIAK	BEHAR NAGUSIAK				EPEA
		Ikusgarritasuna eta errekonozimendua	Bizibaldintza sozial, material eta emozionalak	Indarkeriarik gabeko bizitzak	Sozializazioa, zainta eta parte-hartze komunitarioa	
<b>1. Memoria</b>						
	1.1. Errenteriako adin ezberdinetako LGTBI+ pertsonen arteko topaguneak ahalbidetu, memoriaren transmisioa partekatzeko				x	Ertaina
	1.2. Errenteriako LGTBI+ pertsonen eta mugimenduaren memoriaren jasoketa eta ikerketarako beka baten sorrera	x				Motza
	1.3. Espazio publikoan eta kale izendegian LGTBI+ pertsonen ikusgarritasuna bermatu	x				Ertaina
	1.4. Errenteriako kultur arloko pertsonaia eta sinbolologian LGTBI+ begirada txertatzeko gogoeta abiatu, memoria historikoa aintzat hartuta	x			x	Luzea
	1.5. Errenteriako LGTBI+ pertsonen eta mugimenduaren ibilbide historikoa aztertzen duen bisita gidatua sortu eta programatu	x				Luzea
<b>2. Protokoloa</b>						
	2.1. Udaleko protokolotik abiatuta, instituzio ezberdinekin protokolo partekatua diseinatu eta jarraipena egiteko beharreko koordinazio espazioak sortu			x		Ertaina
	2.2. Udaleko protokolotik abiatuta, LGTBI+ mugimenduarekin eta herriko eragileekin protokolo bateratua sortu, Udalaz gaindiko esparru eta ekimenetan indarrean jarri dadin.		x	x		Ertaina
	2.3. Eraso LGTBIfobikoei erantzuteko Errenteriako Udalaren protokoloa sortu eta emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko protokoloarekin bateratu		x	x		Motza
<b>3. Sentsibilizazioa</b>						
	3.1. Udal eraikinetako komun eta aldagelen inguruko hausnarketa bat abiatu		x		x	Ertaina
	3.2. LGTBIfobien aurkako Udal protokoloa ezagutzera eman			x		Ertaina
	3.3. Kanpaina handi bat egin hainbat faserekin eta publiko desberdinari eskainia. Maiatzaren 17a eta ekainaren 28a egun erreferentzial gisa baliatu	x		x	x	Motza

	LGTBI+ gaiak jendarteratzeko. Baita Francisen eraiketaren urteurrena ere, ekainaren 10a					
	3.4. LGTBI+ gaien ikusgarritasuna eta lanketa ahalbidetu duen programazio kulturala antolatu	x			x	Motza
	3.5. LGTBI+ gaia ikuspegi dekolonial batetik lantzeko bitartekoak sortu	x	x	x	x	Ertaina
	3.6. Auzoak LGTBI+ pertsonentzako seguruak izan daitezzen iruditegian eragin	x				Ertaina
<b>4. Hezkuntza</b>						
	4.1. Ikastetxeetan identifikatzen diren jazarpen LGTBIfobikoen artapena bideratu Emakumeen Etxeko zerbitzuen bidez			x		Motza
	4.2. Hezkuntza mahaiaren bidez ikastetxeetako programazioan eragin, hezkidetza eta pedagogia feministak modu integralean sustatzeko	x	x	x	x	Luzea
<b>5. Arreta eta saretzea</b>						
	5.1. LGTBI+ pertsonentzat doako aholkularitza eta bidelaguntza eskaini. Baita akonpainamendua trantsizio prozesuan dauden edo abiatu nahi duten pertsonentzat eta beraien familia eta inguruarentzat ere		x			Motza
	5.2. Herrira iritsi berri diren pertsonen harretan LGTBI+ ikuspegia inkorporatu				x	Ertaina
	5.3. Errenteriako LGTBI+ pertsonen eta kolektiboaren elkargune eta saretze-espazio baten beharrari erantzuteko gogoeta ahalbidetu	x			x	Ertaina
<b>6. LGTBI+ zahartzaroa</b>						
	6.1. LGTBI+ pertsonen ikusgarritasuna lantzeko proposamenetan, LGTBI+ zahartzaroa txertatu	x			x	Ertaina
	6.2. LGTBI+ pertsona helduentzat aisialdi eta sozializazio espazio eta eskaintzak programatu				x	Ertaina
	6.3. 65 urtetik gora pertsonekin harremana duten langileak (gizarte langileak kasu) LGTBI+ errealitatearen inguruan formatu eta sentsibilizatu, haien esku-hartzeetan begirada inkorporatu dezaten		x		x	Motza
	6.4. Pertsona helduen egoitzetan, jubilatuen elkarteetan eta eguneko zentroetan LGTBI+ ikusgarritasuna landu eta txertatzeko programa bat abiatu	x			x	Luzea
<b>7. Kultura, aisia eta kirola</b>						
	7.1. Kultur, aisi eta kirol programazioan LGTBI+ ikuspegia zeharkakotasunez txertatu	x			x	Motza

	7.2. Dirulaguntza politiketan LGTBI+ begirada inkorporatu	x		x	x	Ertaina
	7.3. LGTBI+ kulturaren inguruko bilduma osatzen joan, bereziki artxibotik eta liburutegitik	x			x	Motza
	7.4. Herriko jai eta jaialdietan (esaterako, Madalenak, Inauteriak, Atlantikaldia...) LGTBI+ begirada txertatu programazioan zein iruditegian	x				Ertaina
	7.5. Hezkuntza ez formaleko zerbitzu eta eskoletan (ludotekak, gaztelekuak, arte eskola, kuadrilategi...) LGTBI+ begirada txertatzeko bitartekoak ahalbidetu				x	Motza
	7.6. Eskola kirolean LGTBI+ begirada txertatzea ahalbidetu			x		Ertaina
	7.7. Kirolean maskulinitatea lantzeko plan integral baten sorkuntza		x	x	x	Luzea
	7.8. Kirol instalakuntzetan iruditegi ez-heterosexuala sustatu	x				Ertaina
<b>8. GOBERNU ONA</b>						
	8.1. Udal plan eta programa guztietan LGTBI+ begirada txertatu, zeharlerrotasunez		x	x		Ertaina
	8.2. LGTBI Aholku Batzordea sortzea, administrazio publikoak, elkarteek eta funtsezko eragileek osatua, Planaren betearazpenaren jarraipena egiteko	x	x			Motza
	8.3. LGTBI+ politikak garatzeko udalaren antolaketak nolako beharko lukeen aztertu, egituraren eta giza baliabideen ikuspegitik					Motza
	8.4. Emakumeen Etxea, emakume LTBlentzat espazio segurua izatea.		x	x	x	Motza
	8.5. Trans pertsonen bizitza duinen aldeko politikak diseinatu eta aplikatzea	x	x	x	x	Ertaina
	8.6. Kontratazio publikoetan LGTBI+ begirada txeratzea, klausula sozialen bidez	x	x	x	x	Ertaina
	8.7. LGTBI+ eta feminismoaren inguruan esku-hartzeak pentsatu, diseinatu eta aplikatzerakoan, sail desberdinen arteko harreman eta elkarlana ematea	x	x	x	x	Ertaina
	8.8. Berariazko aurrekontu-partida bat esleitzea LGTBI+ Planaren garapenerako	x	x	x	x	Motza
	8.9. Udaleko ordezkariak politikoari zein Udal langileei LGTBI+ formazioa bideratzea	x	x	x	x	Ertaina

## 6 ERANSKINAK

### ELKARRIZKETAREN GIDOIA

*\*Erakusten den gidoia gida gisa baliatu dugu, pertsona bakoitzari egokituz.*

1. Aurkezpena.

2. Orokorra: LGTBI+ eta Errenteria. Zer nolako giroa ikusten duzu herrian LGTBI+ ikuspuntutik?

3. Aldaketak: Nola aldatu dira gauzak herrian?

3.1. Giroaren aldetik (kaleak, tabernak, establezimenduak, auzoak...).

3.2. Udaletxearen aldetik: neurriak/politikak jarri dira martxan? Zer ekimen ikusi dituzu herrian?

4. LGTBI+ komunitatearen eskaerak (bai herrian, bai orokorrean). Zeintzuk izan dira? Zeintzuk dira orain? Zeintzuk ez daude baina beharrezkoak ikusten dituzu?

5. LGTBI+ neurri eta politikak.

**LANDA-LANA:**

NOREKIN	ZER	DATA
Udala	1. bilera	2021/04/21
LGTBI+ Mahaia	1. saioa	2021/05/11
Errenteriako Alderdi Politikoak	Proiektuaren aurkezpena	2021/06/24
LGTBI+ Mahaia	2. saioa	2021/07/06
- Gizon cis, homosexuala, 46 urte. Errenterian jaioa.	LGTBI+ mugimenduko kidea	2021/07/09
- Emakume cis, lesbiana, 30-35 urte. Pasai Donibanen jaioa, 4 urte Errenterian.	LGTBI+ mugimenduko kidea	2021/07/12
Udala	2. bilera	2021/07/19
- Emakume cis, lesbiana, 45-50 urte. El Salvadorren jaioa, 15 urte Errenterian.	Mugimendu feminista eta LGTBI+ mugimenduko kidea	2021/09/10
- Emakume cis, lesbiana, 45-50 urte. Errenteriakoa. - Emakume cis, lesbiana, 65-70 urte. Errenteriakoa.	Biak mugimendu feministako kideak, eta Berdintasun kontseiluko kideak. Batek Gipuzkoako lesbianen lehenengo kolektiboko sorreran parte hartu zuen.	2021/09/15
- Gizon cis, homosexuala, 60 urte inguru. Errenterian jaioa.	LGTBI+ mugimenduko kidea	2021/09/16
- Gizon cis, bisexuala, 25 urte. Errenterian jaioa. - Gizon cis, homosexuala, 22 urte. Lezon jaioa baina Errenterian egin du bizitza.	Gazte mugimendu eta LGTBI+ mugimenduko kideak. Leioan (unibertsitatean militatzen hasiak).	2021/09/21
LGTBI+ Mahaia	3. saioa	2021/10/05
- Emakume cis, bisexuala, 18 urte. Errenterian jaioa.	Ikasle mugimendu eta mugimendu feministako kidea.	2021/10/08
- Emakume cis, lesbiana, 45 urte. Errenterian jaioa.	Etxeko andrea. Ume trans baten ama.	2021/10/13
- Emakume cis, lesbiana, 24 urte. Errenterian jaioa.	Kanpoan ikasi du psikologia eta orain bueltan dago.	2021/10/14
Udala	3. bilera	2021/10/19
Berdintasun Kontseilua	Neurriak pentsatu	2021/10/20
Udaletxeko sailak	Neurriak pentsatu	2021/10/25
- Emakume cis, heterosexuala, 45 urte inguru. Errenterian jaioa.	Auzo-elkarte bateko kidea.	2021/11/02
- Emakume cis, heterosexuala, 35 urte	Mugimendu feminista eta jai-batzordeko	



inguru. Errenterian jaioa.	kidea.	2021/11/03
Ainhoa Azurmendi	Neurriak proposatu - kirola	2021/12/15
Loratuz Lotu Elkartea	Neurriak proposatu - trans gaia	2021/12/16
Udala	Lehen zirriborroaren kontrastea.	2021/12/20
Udala	Bigarren zirriborroaren kontrastea	2022/02/01
Udala + LGTBI+ Mahaia	Neurrien kontrastea eta lehentasunak adostea	2022/02/01